



CONSULTA PÚBLICA CONSEJO DE EUSKERA DE AGURAIN

“REGLAMENTO DEL CONSEJO DE EUSKERA DE AGURAIN”

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas – LPACAP y por acuerdo de pleno de fecha 29 de noviembre de 2023 se acuerda someter la propuesta de Reglamento del CONSEJO DE EUSKERA DE AGURAIN a consulta pública durante un plazo de 20 días hábiles, a través del portal web del Ayuntamiento de Agurain con el fin de recabar la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por el futuro reglamento.

PROPUESTA REGLAMENTO:

AGURAINGO EUSKARA KONTSEILUA

Udalaren eta tokiko gizarte eragile guztien arteko hizkuntza politika partekatua bultzatzeko tresna izango da.

1.-Xedea

Aguraingo Udalak aitortzen du hizkuntza eskubideak oinarritzekoak direla eta, ondorioz, botere publikoek herritar guztiei bermatu beharrekoak. Era berean uste du gobernatze onak bete behar dituen printzipioetako bat dela herritarrek hizkuntza politiken sorreran eta proiektu eta programak planifikatzen eta ebaluatzen parte hartzea. Horrenbestez, hizkuntza normalizazioak Aguraingo udalerrarentzat duen garrantzi estrategikoa dela eta, eratzen da Aguraingo Euskara Kontseilua.

Aguraingo Udaleko Euskararen Kontseiluaren eginkizun nagusia: Udalak aurrera eraman beharreko hizkuntza politika modu partekatuan zehaztu eta garatu, euskara udalerriko lehen hizkuntza funtzionala izan dadin.

2. Aguraingo Euskara Kontseiluaren izaera.

Aguraingo Euskara Kontseilua udalerrian hizkuntza normalizazioan diharduten talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkarien harreman-organoa izango da.



Aguraingo Euskara Kontseiluaren esku-hartzea bere eginkizuntzat hartuko dituen gaien azterketan adieraziko da, eta horietan eginiko proposamenak edo alternatibak kontuan izango dira.

Hala ere, Aguraingo Euskara Kontseiluak Udalari eginiko proposamen edo alternatibak behin betiko onespenean kontuan hartuak izango ez balira, zergatiak adierazita erantzungo dira.

Aguraingo Euskara Kontseiluak Udalarekin izan beharreko harremanak Zehar Lerroen Batzorde Informatiboaren bidez izango ditu eta Kontseiluaren funtzionamendu egokia bermatzeko, Euskara zerbitzuaren laguntza teknikoa izango du.

3. Aguraingo Euskara Kontseiluaren egitekoak.

Udalak bere egiten du udal zerbitzuetan eta gure lurraldeko esparru guztietan euskararen normalizazioaren helburua, eta helburu horiek lortzen lagunduko duten hizkuntza-irizpide eta plan espezifikoak garatu, onartu eta bete-arazteko konpromisoa hartzen du.

Aguraingo Euskara Kontseiluak helburu horiek lortzen laguntzeko egiten dituen proposamenak dagokion organoetara bideratzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen du Aguraingo Udalak, interes publikokotzat jotzen duen guztietan.

Aguraingo Euskara Kontseiluaren eginkizunak ondorengoak izango dira:

- Aguraingo Udalari ESEP- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (Erabilera Plana barne) osatzen eta egokitzen laguntzea, hots, udalerriko plan estrategikoa egiteko proposamenak luzatzea, Udalbatza Osoak ontzat eman aurretik.
- Onarturiko plan estrategikoa garatzeko urteko kudeaketa planen diseinuan eta jarraipenean parte hartzea. Plan hori garatu ahal izateko egitasmo eta jarduera egokiak proposatzea.
- Oro har, Aguraingo Udalaren Zehar Lerroen Batzorde Informatiboaren eskariari jarraituz, Aguraingo udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko lanekin zerikusirik duten gaiak aztertzea eta proposamenak egitea.

4.-Partaideak.



Aguraingo Euskara Kontseiluko kideak ondorengoak izango dira:

1. Lehendakaria: Euskara Zinegotzia.
2. Zehar Lerroen Informazio Batzordean ordezkari izango duen alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat.
3. Idazkari-koordinatzailea: Euskara Teknikaria.
4. Idazkariak ahotsa izango du baina boto ahalmenik ez, eta ez da izango Kontseiluko eskubide osoko kidea Kontseilua eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokienean.
5. Kontseilua Aguraingo kolektibo eta elkarteek aukeratutako ordezkariak osatuko da, gutxienez 5 ordezkari eta gehienez 30 izango dira.

Aguraingo Euskara Kontseiluko kideak entitate baten ordezkari diren neurrian, entitateak berak izendatuko du ordezkaria, ondoren udalari komunikatu beharko dio hartutako erabakia. Horrez gain, kide horiek entitate bakar baten izenean hartuko dute parte. Pertsona batek ezin izango du, inolaz ere, entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Kontseiluko kideek gehiengoz erabaki dezakete pertsona zehatzei kontseilukide izateko gonbitea luzatzea.

5. Kontseilukideen egitekoak.

5.1. Lehendakariaren funtzioak.

- Kontseiluaren ordezkari izatea.
- Gai ordena proposatzea.
- Ohiko eta ez ohiko bileretarako dei egitea.
- Udal teknikariak eta erakunde eta elkarten ordezkariak gonbidatzea.
- Bilera buru izatea eta bileren garapena moderatzea.
- Herritarren parte hartzea bermatzea.
- Kontseiluaren ekimen eta proposamenak Zehar Lerroen Batzorde Informatiboari, eta hala badagokio Udalbatzari, helaraztea, horiek bidera ditzaten.
- Lehendakari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

5.2. Idazkari-koordinatzailea: Euskara Teknikaria.



- Aztertzen ari diren gaien legezko alderdiei buruz aholku ematea, laguntza juridiko egokiak baliatuta, behar izanez gero, beti ere, udaleko idazkariaren laguntzarekin.
- Lehendakariari proposatuko dizkio Kontseilurako gai-zerrendarako gaiak.
- Kontseiluko bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe. Bileretako akta egitea eta sinatzea.
- Akta guztiak Euskara Departamentuan gorde eta Kontseiluko kideen esku izatea.
- Bileretarako deialdiak kontseilukideei bidaltzea, gai zerrendak eta azken bilerako aktarekin batera.
- Aguraingo Euskara Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.

5.3. Aguraingo Euskara Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak:

a) Aguraingo Euskara Kontseilukideen eskubideak:

- Aguraingo Euskara Kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea, hitza eta boto eskubidearekin.
- Gai-ordenean jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan Kontseiluak gehiengo osoaz hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.
- Hizkuntza normalizazioaren politikari buruzko proposamenak planteatzea.
- Aguraingo Euskara Kontseiluak hartutako erabakiak betetzearren garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.
- Aguraingo Euskara Kontseiluko aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.

b) Aguraingo Euskara Kontseilukideen betebeharrak:

- Aguraingo Euskara Kontseiluko bileretan parte hartzea. Horrez gain, Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan parte hartze aktiboa izatea.
- Aguraingo Euskara Kontseiluaren garapena eta sustapena hobetzeko laguntza ematea.
- Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.

6. Bileren aldizkakotasuna eta funtzionamendua.

Aguraingo Euskara Kontseilua gutxienez bi hilabetean behin bilduko da (udan izan ezik).



Lehendakariak edo kontseilukideen heren batek beharrezkotzat joz gero, ez-ohiko bilerak egin ahal izango dira. Horrelakoetan, gehienez ere 15 eguneko epean gauzatuko dira bilera horiek. Deialdiak, gutxienez, zazpi egun natural lehenago egin beharko dira.

Aguraingo Euskara Kontseilua eratutzat joko da kontseilukideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean, gutxienez 6 izango dira. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da Lehendakaria (edo berak hautatuko ordezeko bat) eta Idazkaria bertan egotea.

Aguraingo Euskara Kontseiluak hartutako erabakiak proposamen gisa hartuko dira kontuan.

Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Bozketetan berdinketa emanez gero, berriro bozkatzeari ekingo zaio eta, hala ere, berriro berdinketa emango balitz, gaia mahai gainean geratuko litzateke adostasun handiagoa bilatzeko asmoz.

Erregelamendu honetan jaso ez diren gai guztietarako, Udal Organoen Araudian eta toki erregimen araudiak kide anitzeko organoen inguruan ezarritakoa bete beharko da.



CONSEJO DE EUSKERA DE AGURAIN

Será un instrumento para impulsar una política lingüística compartida entre el Ayuntamiento y todos los agentes sociales locales.

1.-Objeto

Ayuntamiento de Agurain reconoce que los derechos lingüísticos son básicos y que, en consecuencia, deben ser garantizados por los poderes públicos a toda la ciudadanía. Asimismo, considera que uno de los principios que debe cumplir la buena gobernanza es la participación ciudadana en la concepción de políticas lingüísticas y en la planificación y evaluación de proyectos y programas. Por tanto, dada la importancia estratégica de la normalización lingüística para el municipio de Agurain, se constituye el Consejo de Euskera de Agurain.

Función principal del Consejo del Euskera del Ayuntamiento de Agurain: definir y desarrollar de forma compartida la política lingüística a desarrollar por el Ayuntamiento para que el euskera sea la primera lengua funcional del municipio.

2. Carácter del Consejo de Euskera de Agurain.

El Consejo de Euskera de Agurain será el órgano de relación entre las personas representantes de los grupos, asociaciones y entidades públicas y privadas que trabajan en la normalización lingüística en el municipio.

La intervención del Consejo de Euskera de Agurain se plasmará en el análisis de los temas que asumirá como sus funciones, teniendo en cuenta las propuestas o alternativas realizadas en los mismos.

No obstante, si las propuestas o alternativas realizadas por el Consejo de Euskera de Agurain al Ayuntamiento no fueran tenidas en cuenta en la aprobación definitiva, se responderán con indicación de los motivos.

El Consejo de Euskera de Agurain mantendrá las relaciones con el Ayuntamiento a través de la Comisión Informativa de Asuntos Transversales y, para garantizar el buen funcionamiento del Consejo, contará con la asistencia técnica del servicio de Euskera.

3. Funciones del Consejo de Euskera de Agurain.

El Ayuntamiento asume el objetivo de la normalización del euskera en los servicios municipales y en todos los ámbitos de nuestro territorio y se compromete a desarrollar, aprobar y hacer cumplir los criterios y planes lingüísticos específicos que contribuyan a la consecución de dichos objetivos.



El Ayuntamiento de Agurain se compromete, siempre que lo entienda de interés público, a canalizar y desarrollar las propuestas que realice el Consejo de Euskera de Agurain para contribuir a la consecución de estos objetivos a los órganos correspondientes.

Corresponden al Consejo de Euskera de Agurain las siguientes funciones:

- Colaborar con el Ayuntamiento de Agurain en la elaboración y adecuación del ESEP- Plan de Acción para la Promoción del Euskera (incluido el Plan de Uso), es decir, formular propuestas para la elaboración del Plan Estratégico del municipio, antes de su aprobación por el Pleno de la Corporación.
- Participar en el diseño y seguimiento de los planes anuales de gestión para el desarrollo del plan estratégico aprobado. Proponer los planes y actuaciones adecuadas para el desarrollo de dicho plan.
- En general, y a petición de la Comisión Informativa de Asuntos Transversales del Ayuntamiento de Agurain, analizar y proponer cuestiones relacionadas con los trabajos de normalización del uso del euskera en el municipio de Agurain.

4.Participantes.

El Consejo de Euskera de Agurain estará compuesto por las siguientes personas:

1. Presidencia: persona que ostente la Concejalía de Euskera.
2. Persona representante de cada partido político con representación en la Comisión Informativa de Asuntos Transversales.
3. Secretaría-Coordinación: Técnico de Euskera. Tendrá voz pero no poder de voto, y no será miembro de pleno derecho del Consejo en cuanto al quórum de constitución del Consejo, mayorías y votaciones.
4. El Consejo estará compuesto por representantes designadas por los colectivos y asociaciones de Agurain. El número mínimo de representantes será de un mínimo de 5 y un máximo de 30 personas.

En la medida en que los miembros del Consejo de Euskera de Agurain representen a una entidad, ésta designará a la persona representante, comunicando posteriormente la decisión adoptada al Ayuntamiento. Además, estos miembros participarán en nombre de una única entidad. En ningún caso una persona podrá representar a más de una entidad.

Excepcionalmente, podrán formar parte en el consejo personas físicas que no pertenezcan a ninguna asociación, siempre que así lo acuerde el consejo.



5. Funciones de los miembros del Consejo.

5.1. Funciones de la Presidencia.

- Representar al Consejo.
- Proponer el orden del día.
- Convocar reuniones ordinarias y extraordinarias.
- Invitar al personal técnicos municipal y representantes de entidades y asociaciones.
- Presidir las reuniones y moderar su desarrollo.
- Garantizar la participación ciudadana.
- Elevar las iniciativas y propuestas del Consejo a la Comisión Informativa de Líneas Transversales y, en su caso, a la Corporación para su tramitación.
- Ejercer cualesquiera otras funciones que le correspondan como Presidente o Presidenta.

5.2. Secretaría-Coordinación: Personal Técnico de Euskera.

- Asesorar en los aspectos legales de los asuntos que se tratan, con los apoyos jurídicos oportunos, en su caso, con la asistencia de la Secretaría del Ayuntamiento.
- Proponer a la Presidencia los temas del orden del día del Consejo.
- Asistir a las reuniones del Consejo con voz pero sin voto. Elaborar y firmar las propuestas de acta de las reuniones.
- Guardar todas las actas en el Departamento de Euskera y estar a disposición de los miembros del Consejo.
- Remitir las convocatorias de las reuniones a los miembros del Consejo, junto con el orden del día y el acta de la última reunión.
- Canalizar los acuerdos adoptados por el Consejo de Euskera de Agurain.

5.3. Derechos y deberes de los miembros del Consejo de Euskera de Agurain:

a) Derechos de los miembros del Consejo de Euskera de Agurain:

- Participar en los debates de las reuniones del Consejo de Euskera de Agurain con voz y voto.
- Proponer algún asunto no incluido en el orden del día. En estos casos el Consejo se pronunciará por mayoría absoluta sobre el asunto.
- Plantear propuestas sobre la política de normalización lingüística.
- Tener información de las acciones que se desarrollen en cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo de Euskera de Agurain.



— Obtener las actas y toda la documentación del Consejo de Euskera de Agurain.

b) Deberes de los miembros del Consejo de Euskera de Agurain:

- Participar en las reuniones del Consejo de Euskera de Agurain. Participar activamente en las acciones que se promuevan en cumplimiento de las decisiones adoptadas por el Consejo.
- Colaborar en la mejora del desarrollo y promoción del Consejo de Euskera de Agurain.
- Respetar y cumplir lo dispuesto en el presente Reglamento.

5. Periodicidad y funcionamiento de las reuniones.

El Consejo de Euskera de Agurain se reunirá al menos una vez cada dos meses (excepto en verano).

Cuando la Presidencia o un tercio de los miembros del Consejo lo consideren necesario, podrán celebrarse reuniones extraordinarias. En este caso, dichas reuniones se celebrarán en el plazo máximo de 15 días. Las convocatorias deberán realizarse con una antelación mínima de siete días naturales.

El Consejo de Euskera de Agurain se entenderá constituido cuando asistan la mitad más uno de sus miembros, que como mínimo serán 6. En todo caso, para que la constitución tenga validez será necesaria la presencia de la Presidencia (o de uno de sus suplentes) y de la Secretaría.

Los acuerdos adoptados por el Consejo de Euskera de Agurain serán tenidos en cuenta como propuesta.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple. En caso de empate en las votaciones, se retomará la votación y, sin embargo, si se volviera a producir un empate, el tema quedaría sobre la mesa con la intención de buscar un mayor consenso.

En todo lo no previsto en el presente Reglamento se estará a lo dispuesto en el Reglamento de los Órganos Municipales y en la normativa de régimen local en materia de órganos colegiados.

PLAZO PRESENTACIONES DE APORTACIONES:

INICIO: 5 DICIEMBRE DE 2023

FIN DE PLAZO: 5 ENERO DE 2024